


jokulariak 125

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
apirila 2022 abril



AGUR



AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada,

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa


Y recibirás los
derechos que te
corresponden



aisge

www.aisge.es

Tel. 943 271 599




125


apirila
abril
2022
Azala Argazkia
Eneko Olasagasti



14



17



06

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@euskalaktoreak.eus
eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabibilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

Koordinazioa, edizioa

Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
I. Z.

Inprimategia

Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau
denona dela eta gustura
hartuko genituzkela zure iritsi eta
artikuluak.

Recordad que esta revista
es de todos y que
gustosamente recibiremos tus
opiniones y artículos.

SUMARIO

04 EDITORIALA
**Batzar Nagusia eta
Zuzendaritza Batzorde
berria**
EAB

06 **ELKARRIZKETA**
Milesker Gurutze
Eneko Olasagasti

14 **Agur Plató!**
Plató Taldea

16 **Zinegoak 2022**
Nadia Bolaños

17 **EGINDAKO IKASTAROAK**
Haizea Aguila

18 **OHARRAK**

BATZAR NAGUSIA ETA ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Pasa den otsailak 19an Ohiko Batzar Orokorra egin genuen, online. Jasoko zenuten posta elektronikoren bidez dagokion akta. Bertan jasotzen dira aipatutakoak eta erabakitakoak. Pasa bazaizue eta berriro jaso nahi izatekotan deitu edo idatzi besterik ez duzue.

Puntu garrantzitsuen artean, kontuak eta aurrekontuak onartez gain, Zuzendaritza Batzorde berriaren hautaketa egin zen, batzorde erdia eta Idazkari Nagusia aukeratuz. Hurrengo orrian daukazue osaketa junta kideen argazkiekin batera.

Ziurrenik aurrean ditugun gai potoloen artean nabarmentzekoa da Gurutze Baztarrikaren, gure aholkulari juridikoaren, jubilazioa. Lerro hauek idazteko garaian bete betean ari gara Gurutze ordezkaturako duen pertsonaren bila. Nor izango den jakinez gero berehala informatuko zaituztegu. Agian, aldaketak, barne funtzionamendua eragina izan dezake eta.

Ez dakigu zer gertatzen ari zaigun ikastaroekin baina gauza bategatik edo besteagatik fetxa dantza handia daukagu. Eta udaberrirako aurreikusita genuena udazkenara aldatu behar izan dugu. Irudipena dugu udazkena ikastaroz beteta etorriko zaigula. Jakingo duzue gauzak konkretatzen diren heinean.

Bestetik, aurrean ditugun erronkei begira ezin bazter utzi azken urte ta erdi luzean Arte Eszenikoetako konbenioaren negoziaketarekin behingoz amaitu eta onartzea gelditzen zaigula esan nahiko genuke baina afera ez da inoiz ez azkarra eta ez erabakiorra izan. Ikusteko dago. Kosta egiten zaigu hurrengo idaztea, kontu honekin lau urtetik gora baitaramatzagu, baina honi ere iritsiko zaio martxan jartzeko ordua. Artistaren Estatutoaz ari gara. Eta itxura guztien arabera Madrileko Gobernuak dagoeneko iragarri du. Esan du ere, azarotik hona 17 bileratik gora egin direla 7 Ministeritza diferenteen eta eragile batzuen artean. Egia esan ez dira gutxi. Hori bai, ez da erraza izango hainbeste partaide ados jartzea. Baina ez dezagun itxaropenik galdu. Gaur arte itxaron badugu pixka bat gehiago itxarotea ez da larriena izango. Zeozertan aurrera egitea lortuz gero.

Hezkuntza Batzordea ere berri du inkorporazio batzuekin. Bertan parte hartzeko interesa duzenok hemen gaituzue. Aurten gainera zuzenean parte hartuko dugu urrian egingo den EDADEI 4.ren antolaketan.

Beraz, uzten gaituzten Junta kideei eskerrik asko eta agur, eta inkorporatu diren berriei: Ongi etorri lagunak!

EABKO ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA NUEVA JUNTA DIRECTIVA DE EAB



Iñigo Aranburu
Gipuzkoa,
Idazkari Nagusia Secr. General




Judit Lorenzo
Bizkaia

El pasado 19 de febrero se celebró la Asamblea General Ordinaria renovándose parte de la Junta y la Secretaría General. En su momento se envió el acta de la misma por correo electrónico. En estas páginas tenéis la composición de la Nueva Junta.

Entre los temas a destacar para el próximo año cabe señalar la importancia que tiene sustituir a la responsable del departamento jurídico, Gurutze Baztarrika. Estamos ya en ello.

Y como temas que van acaparar nuestro día a día destacamos el fin del proceso de negociación del Convenio de las Artes Escénicas, así como, según ha dado a entender El Gobierno de Madrid, la puesta en marcha del traído y llevado Estatuto del Artista, proceso que promete ser largo ya que implica hasta a 7 Ministerios y Consejerías. Os mantendremos informados/as.



Jose Cruz Gurrutxaga
Araba



David Blanka
Araba



Idoia Merodio
Bizkaia



Ramón Ibarra
Bizkaia



Alazne Etxeberria
Gipuzkoa



Eneko Olasagasti
Gipuzkoa



MILESKER GURUTZE

Testua eta argazkiak **Eneko Olasagasti**

Agian zuetako askok ez duzue jakingo Gurutze Baztarririk erretiroa hartuko duela maiatza inguruan. 26 urte baino gehiago EABri eskainita badao. Ezin zerrenda batean ipini Gurutzek EABri emandako guztia. Askok faltan botako dugu nahiz eta espero dugun ere bere ordez etorriko denak berak bezain zintzo, ondo eta leial jokatu duen. Zerbait garbi badago da Gurutze EABren azken hamarkadetako memoria bizia dela. Bestela, egin diogun elkarrizketa hau irakurtzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Hemen duzue, bada, luze zabal berarekin izandako solasaldia.

Nola iritsi zinen urte hauetan zure lanpostua izan den honetara?

2021ko azaroan 26 urte egin ditu hona iritsi nintzenetik. Ordura arte LAB sindikatuan lan egin nuen urte dexente. Sindikatuko lanarekin oso pozik negoen baina ordu asko suposatzen zizkidan eta ni momento hartan bi seme txiki nituen eta EABko eskaintza,

egun erdia lan egitekoa, oso ondo etorri zitzaidan. Eta horrela sartu nintzen, Teresa Calo Idazkari Nagusia zelarik eta momentu hartan Egiako Fruta Merkatuko eraikinean zegoen EABko bulegoa, bigarren pisuan. Esther Gesalaga zena idazkaria zen. Gero, eguneroko harremanak genituen Maribel Belastegi eta Rosi Iras-torzarekin, Orainekoak biak. Beheko pisuan baitzuten lokala. Han hasi nintzen hasieran astean hirutan baina berehala astean egunero

Zuk ez zenuen ezagutzen aktoreen mundua, ez? Ze berezitasun topatu zenituen?

Ni lan mundutik nentorren, sindikalismotik eta berezitasun handiak zeuden bai. Baina egia da ere Teresa Calo oso oso jarrita zegoela Artisten Erregimenak zituen berezitasunekin eta niretzat oso lagungarria izan zen berak zeukan ezaguera, bera aktorea zelako. Eta hasiera hura izan zen batere ezagutu gabe baina sindikalismoak emandako eskarmentutik abiatuta zegoen normatiba eskasa ikasi, begiratu... eta baita ere momentu hartan, nahiz eta afiliazio txikiagoa izan afiliatuak asko hurbiltzen ziren sindikatura, bakoitza bere arazoe-kin zetorren, Gizarte Segurantzakoak, langabeziakoak, kontratoak... Orduan, bada, kasu praktikoekin ikasten hastea suposatu zuen horrek.

Afiliatuak, gaurko egunarekin alderatuta, asko hurbiltzen zirela esan duzu...

Momentu hartan, oraindik ere, idatziak idazteko makinekin egiten ziren. Ordenagailuarekin izan genuen lehen harremana han geundela izan zen... Baina gogoratzen dut momento hartan ordenagailura hurbiltzeak guretzat zailtasun izugarria suposatu zuela. Jendeak ez zeukan ordenagailurik etxean, esango nuke mugikorrik ere ez oraindik. Bueno, egongo ziren baina ez guztientzat eskuragarri. Eta orduan jendeak arazoak zituen telefono finkora deitu ordez hurbildu egiten zen. Eta egunero jendea egoten zen, batzuk besteak bukatzekozain eta horrela.

A ze alde gaurko egunarekin, ez?

Bai, bai... Eta pentsa ze desatsegina zen bulego hura... Eta han ez dakit zenbat denbora egon ginen, ez dut gogoratzen ya. Bueno, Atotxa botatzen hasi ziren arte. Bost sei urte esango nuke. Eta handik, Kike Diaz de Rada Idazkari Nagusi zelarik, joan ginen San Barto-

lomé kaleskara. Hura ere zulo malapartatu bat zen orduan eta geuk egin genituen txukuntze eta antolaketa lanak. Egia da udaletxeko langileak lehendik Atotxatik ezagutzen genituenez, asko lagundu zigutela margotzen, atea jartzen eta abar. Garai hartatik gelditu da entsaioetarako eta ikastaroetarako daukagun lokala, gu aldameneko bulego batean geunden. Han beste urte batzuk egon ginen. Ordurako Esther, hil aurretik, alde egina zen. Oso lagunak egin ginen Esther eta biok, eta... pena bat izan zen, izugarria. Gero gogoratu nahi ez nukeen Jon Ezkurdia sartu zen eta honek utzi zuenean Loinaz Jauregik hartu zuen tokia. Belen Cruz ere sartu eta irten egin zen eta Joxean Bengoetxeak ere egin zuen lan hori bolada baten. Momentu batean hiru pertsona ere egon ginen. Loinaz, Joxean eta neu. Eta Joxeanek utzi zuenean Belen sartu zen zu etorri arte. Uste dut kronologia horrela izan zela.

Momentu batean Paco Hernando izan zen Idazkari Nagusia eta epe horretan Bilbon bulegoa zabaldu zen, Alde Zaharrean (Burtsaren eraikinean), eta gero handik Santutxura aldatu ginen gaur arte. Eta Bilbora ni dexente joaten nintzen, astean bitan bai behintzat. Orduan oraindik ez zegoen Bilbon liberatu jenderik baina afiliatuak hurbildu egiten ziren, bai.

Ze motatako kontsultak egiten ziren?

Garai hartan gaur egun egiten ez diren gauza batzuk egiten zituen. Esatebaterako urteroko erregularizaioak. Erregularizazio horiek urte bukaeran jende askok egiten zuten eta horretarako jendea bulegora etortzen zen, erregularizazio horiek eskuz egiten baitziren...

Gero momento garrantzitsu bat iritsi zen... Guk garai hartan EAB bezala Federazio Estataletan parte hartzen genuen. Batetik zegoen Madrilgo Federazioa eta gero OSAAEE, Kataluña; Valentzia, gu... Orduan negoziatu ziren gauzen artean zegoen Artisten Erregimenean kotizazioak kobratutako soldatetara hurbiltzea. Orduan kotizazioak egin ziren igo bai enpresentzat et baita langileentzat ere eta erregularizazio automatikoa ezarri zen. Gizarte Segurantzaz hasi zen egiten orain egiten duen berdina, urte bukaeran bidali aktoreari zenbat irabazi duen, zenbat kotizatu eta nahi badu diferentzia horren gainean langileak kotizazioa egin. Garai hartan enpresek ez zituzten kotizazioak hainbeste igo nahi. Igo zituzten, bai, baina ez behar adina. Eta hortaz diferentziak sortzen dira oraindik ere noski, handiak



gainera. Ikusentzunezkoetan antzerkian baino gehiago. Eta negoziazio horren ondorioz erregularizazio hori langileak berak egin behar izatea desagertu egin zen.

Zure ustez, zergatik da beharrezkoa EAB? Ze onurak ekartzen dizkio aktore jendeari?

Nik baino aktoreek esango lukete hobeto zertan ikusten duten beraiek afiliazioa beharrezkoa. Batzuk promozioa esangol lukete, beraietzat eskaparate baten modukoa delako EABn egotea. Lehen promozioa egiten zen liburuaren eta bideo book-aren bidez. Horiei ematen ziztzaizen zabalkuntza osoa. Casting zuzendariei, ekoizleei, antzerki konpainiei banatzen genien. Hori EAB-rentzat produkzio garrantzitsu bat izaten zen. Interneten bidez promozioa egiten hasi zenean hori bukatu egin zen. Nik uste dut aldaketa onuragarria izan dela aktoreentzat, internetez web orriaren bidez. Batzuk esango dute ezertarako ez diola balio, inoiz ez diotelako deitu orritik abiatuta, beste batzuk esango dizute askotan deitu diotela. Nik uste dut, orokorrean, promozioarena izan dela askorentzat arrazoi inportanteena EABn egoteko.

Alde sindikala baino gehiago.

Ez, ez... Esaten ari naiz ze onurak dituen orokorrean. Alde sindikalak ze onurak dituen? Badaukatela hemen, EABn, nora etorria beraien arazoak edo zalan-tzak edo kezak edo... azaltzeko. Erantzuna emango dion jendea aurkituko duelako. Eta gainera erantzun zuzena zeren mundu sindikalean jende asko dabil baina aktoreen sindikalismoa ezagutzen duen jende askorik ez dago. Lehen esan dudan moduan, dauzkagun berezitasun horiengatik eta arlo txikia izanik, langile gutxi dituen arloa izanik askotan gabezia horiek ikusten dira... Baita administrazioan ere, bai hemen eta baita Madrilen ere. Sektore marginala, jende gutxikoa eta dauden baliabide legalak erabiltzen jende askok ikasi ditugu erabiltzearen poderioz. Baina beharrik izan ez baduzu badaude hainbat eta hainbat baliabide asko jorratu gabekoak. Dauden baliabideekin egin ditugu guk lorpen tikiak.

Gure ofizio honek berezitasunak ditu oro har beste lanbide batzuekiko. Eta agian nabarmen-



netakoa da langile eta enpresarien arten dauden muga leunak, nahastu egiten dira. Gurean badaude aktore izateaz aparte enpresari ere badirenak. Horrek berezitasuna bat gehitzen dio gure arteko harremani, ez?

Nik uste dut bakoitzak bere papera oso garbi daukela. Gure afiliatuetako batzuk alde batetik aktore dira eta bestetik enpresari, baina enpresari direnean garbi daukate zer diren, langileekiko eta langile denean langile dela.

Lehen egin didazun galdera EAB-n egotearen onureei buruz... EAB-n egoteak, nik uste, aktoreengan talde konzientzia hori garatzen du. Hainbat ekintza politiko eta sindikalen aurrean EAB-k eduki du bere posizionamendua gai batzuekiko. Gerraren (Irak) aurrean hartutako jarrera, eta hainbat eta hainbat gauzatan eduki du talde konzientzi hori, ez? Talde sindikal konzientzia hori... EAB-ren inguruan biltzen da jendea gauza horietarako. Eta egia da baita ere EAB-ko bazkide eta edozein arazo eta gairen aurrean inplikazioa hartzen duen jendea dela. Ez horrenbeste Aginte Batzordean

edo beste batzorde batzutan parte hartzeaz. EAB-ko jendearekin normaltasun osoz kontatu daiteke. Nik urte hauetan ezagutu dudana edozeinekin edozein gauza puntualaren aurrean, ikerketa bat egiteko edo hor egoteko prest dago. Nik uste dut hori onura bat dela jendearentzat, elkarrearentzat, EAB-rentzat...

Ze desberdintasun dauden ere galdetu didazu. Begira ni orain dela ia 30 urte hemen hasi nintzenean, garai hartan, arazo eta konfliktibitate laborala izugarria zen, enpresari eta langileen artean. Baina nik uste urteak pasata, momento honetan, azkenengo urteetan, langileria eta enpresaren papera asko asko leundu dela. Nik uste, urteen poderioz eta arazoaren poderioz eta abar, alde batetik enpresariak ikasi dute langileak zenbat eta hobe egotea errendimendu hobe ematen duela. Pertsonak zenbat eta gehiago zaindu orduan eta eskarmentu gehiago pilatu eta lana hobeto egiten da. Denetik egongo da baino horrek leundu egin ditu lan harremanak. EAB-ren ikuspegitik agian antzerkian gertutasunagatik harremanak leunagoak dira. Ikusentzuezkotan desberdina da. Epaitegietako kontuak

marra bat ezartzen dute hor. Epaitegira askotan joan izan gara? Ez joaterik izango genuen? Noski baietz. Zeragatik ez? Bueno, ba, askotan gauzak lehenago konpontzen saiatzen direlako. Bai langileak eta bai enpresak. Eta ez badira konpontzen ere, askotan, segun eta ze produktotan amore eman duelako da...

Ikusentzunezkotaz ari zara, ez?

Ikusentzunezkoetan, bai. Antzerkian esan dizut... Gertutasunagatik eta...

Hor ere, asko baldintzatzen du interesatuaren inplikazioak. Askotan igual irregulartasunak eman izan dira baina langileak ez du salaketarik jarri...

Horregatik esaten dizut. Salaketak jartzeko aukera asko egon dira. Baina ez dira asko jarri. Zergatik? Ba igual konpondu direlako epaitegira iritsi baino lehen edo aktoreek amore eman dutelako...

Enpresek amore eman dutelako ez?

Enpresak amore ematen du akordio batera iristen direnen, hortxe, erdibide batean, baina aktore askok amore eman dutela hainbat eta hainbat arazo edo gatazkaren aurrean baita ere.

Adibideren bat jarri dezakezu?

Soldatak berandu kobratu, itxaron hilabeteak kobratu aurretik. Hori Euskal Telebistan ikusi dugu, aspaldiko produktora batekin... Gero... Baita kanpoko produktoratan ere. Zaila baita hemengo aktore bat Madrileko produktora batekin lanean aritu eta arazoak baldin baditu haren aurka egitea. Zaila gertatu izan da. Ez guregatik, zeren gu Madrileran joan izan gara, epaitegira joan behar baldinbada eta... Jendeak ez duelako nahi izan aurrera segi edo. Behin, iritsi ginen ikusentzunezkoetan, hemen, Euskal Herrian akordiora, eta Madrilen konbenioa bazetorren aurretik. Nik uste, Hemen Euskal Herrian saiatu direla betetzen egiten diren ekoizpen apurretan. Zinean bai, noski, eta telebistan ere seguru control gehiago egongo balitz gehiago aterako lirateke hainbat eta hainbat gauza betetzen ez direnak baina ez akordioa baino lehen gertatzen ziren gauzak. Badakizu akordioa orain urte batzuk sinatu zen eta urtero urtero berritzen da.

Hitzegin dezagun piska bat Antzerki konbenioz, amaierarik gabeko istorioa dirudiena. Zenbat denbora da hasi zela kontua?

Nik esango nuke 2004n egin zela lehen bilera serioaren saiakera. Textu oso bat egina... Nik uste texto serioa zela, negoziazio serioa egin zela, urteetan luzatu zena eta... Orduz geroztik begira nola gauden. Pasatu dira 17 urte eta orain bai esango nuke...

Baina bitartean akordioa sinatzen da.

Bai, egia da.

Eta zergatik sinatzen da akordioak eta ez hitzarmena?

Akordioa Hitzarmenarekin duen aldea da akordioak behartzen dituela bakarrik sinatzaileak, kasu honetan EAB eta Eskena, Eskenako enpresak eta EAB-ko langileak.

Zergatik gelditu zen orduan akordioan bakarrik?

Nire ustez arrazoi asko zeuden. Hasteko, patronala ez zegoen elkartuta. Momentu honetan ezta ere. Eta bestetik, eta arazoa egun berdin dago, Euskal Aktoeren Batasunak ezin du hitzarmen bat sinatu. Zergatik? Bada, Langileen Estatutoak dionaren arabera eta ondorioz sindikatuei dagokien araudian jartzen diren baldintzetan zehazten da sindikatu batek negoziatu ahalizateko konbenio bat arloko ordezkaritza sindikala behar du edo Autonomia Erkidegoen edo Estatuan LOLS-ek (Ley Orgánica de Libertad Sindical) ipintzen duen portzentaia bete egin behar da eta betetzen dituzten sindikatuek edozein konbenio negoziatu eta sinatzeko ahalmena dute. Eta EAB-k hori ez dauka. Zeren lan baldintzen, moduen eta epeengatik ia ezinezkoa da araudia betetzea eta hauteskunde sindikalak antolatu ahal izatea enpresetan ordezkaritza hori edukitzeko. Momentu honetan Euskal Erkidego Autonomoan konbenioak negoziatzeko eta sinatzeko ahalmena dutenak ELA eta LAB dira, eta Comisiones eta UGT. Ordezkaritza nahikoa dutelako batzuk EAEN (%15) eta besteak Espainia mailan (%10).

Horrek ez du esan nahi horiek direnik bakarrik negoziazio kolektiboa egin dezaketanak, baude aukera hori duten beste sindikatu batzuk ere baina EAB-k ez. Bere garaian Pausokak Goenkalerekin bai ematen zuen horretarako aukera eta orduan hauteskunde sin-

dikalak antolatu ziren eta ordezkari bat izatea lortu ere. Eta baita Erregistratu Eusko Jaurlaritzan.

Baina momento honetan bai, Antzerkian konbenioa lortu nahi dugu eta horretarako formaltasunak, uste dut, baditugula. Aldebatetik patronala, bai Eskena eta bai Besteok, eseriko dira negoziazio mahaian... Eta langileen aldetik, gutxienez, ELA eta LAB-ek esan digute mahaian egongo direla, aldez aurretik lana egina ematen baldin badugu. Eta hori aurrera eramanez gero Hitzarmena edukitzeak zer suposatzen du? EAEn den antzerki guztia behartuta egongo da bertan ipintzen duena betetzera, bai enpresak eta baita langileak ere.

Desastotasunak ez dira bakarrik soldatan egongo, ez?

Soldatan bakarrik ez... Dena dela esan beharra dago Konbenio honetan bai dagoela gauza berri bat eta, nik uste, inportantea dena. Lanaren egonkortasunari eman diezaiokegun bultzadaxo bat... Irapen luzeko kontratuak aurreikusten dira. Soldatak ez dira hain altuak, boloka ordaintzearekin alderatuta... Kontutan hartu behar da horretarako hemen, Euskal Herrian hilabetean 8 emanaldi egitea ondo dagoela. Bueno... Arazoa sorrarazi duen gaia, gaiak zeintzuk diren... Esatebaterako, interes oso desberdinak daude aktoreak eta enpresen artean aktoreak produkzio bat urteak suposatzen duenare ninguruan... Hori beti izan da nahiko gai korapilatsua eta gatazka sortzailea. Badaude, batetik, legezkoak diren gauzak eta badira ere, bestetik, giza edo emakume legezkoak direnak. Honestidade punttu baten marra pasatu egiten bada guk aktoreari beti esan diogu hori ez dagoela ondo egina. Ezin da produkzio bat utzi beste zerbait interesgarriagoa atera baldin bazaizu egun batetik bestera. Aktoreak eskubide osoa dauka lan bat uzteko, edozein langilek daukan bezala, baina baita ere jakin behar du horrek eragiten duen kaltea bai enpresarekiko eta bai lankideengan. Egun batetik bestera lan bat uztea ez da legezkoa ez aktoreen artean ez beste inon. Zenbat eta espezializazio txikiagoko lana izan orduan eta denbora gutxiago abisua emateko, zenbat eta altuago izan enpresak eskatu dezake baita hiru edo sei hilabeteko epea. Arruntena 15 eguneko epea izatea da. Aktoreen lana zer da? Langile arrunt batena edo espezifikoa? Nik uste dut bigarrean dagoela eta gainera beste enpresatan gertatzen ez dena. Zure la-


nuzte horrek beste lankideengan ere badu eragina. Puntu hori izan da nolabaiteko arazoa. Baina azkenean iritsi gara akordio puntu batera, eta nola garatzen den ikusi eta urtebetera errebisatu eta aldatu beharra lku-siz gero aldatu.

Konbenioa meloi potoloa da guretzat baina bada beste meloi Potolo bat zuk sahiestuko duzuna, bere unean pandemiak atzeratu zuena eta orain berraktibatuko dena. Artistaren Estatutuaz ari naiz

Artistaren Estatutuak egingo duena da: Orokorrean sakabanatuta dauden artista guztien lan baldintzak, bai eskubide intelektualak, beste hainbat eta hainbat erregulazio, sakabanatuta daudenak ere, hobetu edota bildu gutxienez. Orain momento honetan nik ez dakit zenbat denbora eramango duen hori gauzatzea. Baina egia da, azken aste hauetan eta, martxoaren hasieran prentsa ohar baten bidez argitaratutakoaren bidez jakin dugu Artistaren Estatutuaren eta Lan Erreformearen artean egon daitezkeen lotura puntuak. Ohar horretan esaten zaigu Artistaren Estatutuaren bitartez konponduko direla hainbat gauza eta horien artean aldatu beharra dagoen puntu bat da Erreforma Laboralak artistengan duen eragin zuzen bat, hau da... Mundu guztiak daki artisten kontratoak izaten direla motzak, laburrak, beti zerbitzu edo obra bati lotuak eta Erreforma Laboralak egiten duena da kontrato finkoen alde apostu izugarri bat, baina obra eta zerbitzu mugatuetako kontratoak desagertu egiten dira. Kontratu mugatu batzuk uzten ditu, fijo-discontinuo direnak edo aldi baterako kontratuak... baina guri dagozkigunak desagertu egiten dira.

Suposatzen da Erreforma Laborala apirilean aterako dela, horrek esan nahi du boletin hau kale-ratzen denerako kontu hori konponduta egon beharko litzatekeela, ez?

Bai, ba... bestela artisteei egiten zaizkien kontratoak, portzentaia handi batean antzerkian eta baita telebistan eta zinean ere, obra edo zerbitzu baterako egiten direnez ez dira aterako. Ze gertatzen da? Erreforma Laboralak, berriz ere, ez dituela kontutan izan artistak. Seguru asko ez zaielako mahai gainean ipini behar den bezala. Esatebaterako, eraikuntzan lanean dagoen jendeak ere obrarako kontratuen bidez egiten du lan



baina patronalak, CEOk, bazuen seguruenik eraikuntzako patronalaren agindu garbia eta bertako langileentzat apartadu berezia sortu dute.

Horrek esan nahi du gure patronala lo hartuta ibili dela?

Ez dakit hori den edo ez zaion behar bezalako garrantzirik eman. Eta beti bezala, behin akordio handia hartzen denean hasi behar dira, orain hasi diren bezala, bilerak egiten patronala eta Ministeritzak arazoa konpontzeko. Zazpi Ministeritza daude gaiarekin lotura dutenak. Korrika eta presaka ibili behar orain ere, eta ez dut esaten gaizki egingo dutenik... oraingoz aurreratu dute apirilaren lehena baino lehen artistari dagokion kontratu bat egongo dela eta mugatua izango dela, noski. Gizarte Segurantzari begiratzuz erreforma berrian kontratu motzentzat nolabaiteko penalizazioa ezartzen zaio kotizazio oinarrian. Hori ere kenduko djutela esaten dute. Bi gauza horiek zuzenduko direla esan dute. Gero Artistaren Estatutoak beste bilakaera bat izango du.

Eta lana utziko duzun honetan eta zure lana beste batek egingo duela jakitun, nola ikusiko duzu zure etxeko sofatik? Baikortasunez...?


Noski baietz. Seguru hobera egingo dugula. Hasieran esan dizudan bezala, lan egiteko moduak aldatu dira pila bat. Lehenik pandemiagatik. Dagoeneko badirudi berdin diola hemen (bulegoan) egotea edo etxetik lan egitea...

Aktoreen kasuan ez...

Aktoreen kasuan ez, gure lanaz ari naiz. Gero ez da lan harremanak ezagutzea bakarrik, harreman guztiak (Erakunde desberdinekin) egiten ari dira modu birtualean. Urteetan egiten ari diren berrikuntza guzti horiek, horietan egunean egotea ez da erraza. Niri behintzat ez zait suertatzen batere erraza azken urte hauetan. Eta nola ez, baikortasunez. Nire lanpostua beteko duena gazteagoa izango da eta gauza guzti hauekin familiarizatuta egongo da. Horrekin bakarrik bide erdia edo ikasita dauka.

AGUR

PLATÓ



Albiste txar bat aprobe txatu nahi dugu omenaldi txiki bat egiteko eta gure lan kuttuna izan den Plató agurtzeko. Izan ere, duela aste batzuk jakinarazi ziguten pieza hau ez dela Euskadiko antzokien sarean programatuko.

Duela ia bi urte hasi genuen abentura kolektibo hau Gasteizko lau konpainia eszenikoaren eskutik. Gure egiteko moduak eta diziplina eszenikoak uztartuko zituen sormen-prozesu batean murgildu ginen, eta lengoia artistiko berri bat sortu genuen. Plató-k soinua, arte bisualak, mugimendua, antzerki-dramaturgia, performancea, dantza eta argiztapena uztartzen zituen. Publikoa Platonen haitzuloaren alegoriarantz sartzen zen, aldi berean telebistako plato bitxi bat zena.


Bidaia honetan parte hartu genuen artista guztiontzat esperimendu zoragarria izan zen eta bide berri bat aurkitu genuen elkarlanean, artea ulertzeko modu desberdinak dituzten pertsonen artean era horizontalean sortuz. Lanaz harro gaude eta gainera, produktua lortzeko bidea benetan magikoa izan zen guztiontzat.

Sekretua beldurrik gabe sortzea izan zen. Mota guztietako arlo teorikoak eta praktikokoak ikertu genituen. Rolak trukatu genituen. Garaion, Baratz eta Montehermoso artean inprobisatu genuen asetu arte, eta bakarrik aurkitzeko gai izango ez ginateke espazio sortzaileak ireki genituen. Emaizta, jakina, pieza eszeniko aberatsa izan da. Oso aberatsa zentzumenen, espazioan, ikusmenen eta teorian. Publikoaren eta ekintzaren arteko harreman tradizionala hausten duen site-espezifiko pieza ibiltaria. Hainbat hizkuntza eszeniko uztartzen dituen diziplinarteko pieza da, ikusleak modu ezohikoan eta hainbat

baliabide teknologikoren bidez jasotzen duena. Hiru dimentsioko ikus-entzunezko koadro bat, gizakien esklabotzaz hitz egiten zuen mundu abstraktu eta oniriko batean murgiltzen gintuena.

Plató, Larrua, Parasite, Sleepwalk eta Tripak taldeek sortu zuten, Baratz, Garaion, Eusko Jaurlaritzan, Gasteizko Antzoki Sarea, Montehermoso eta Vital Fundazioaren laguntzarekin. Gasteizko ur-biltegian 10 egunez antzeztu zen, 2021eko Gasteizko nazioarteko jaialdiaren baitan.

Publikoaren harrera eta kritikak zoragarriak izan ziren arren, inoiz ez da berriz antzeztuko. Euskadik ez du hizkuntza eszeniko berrientzako sarerik. Ez dago Sarean antzerki edo dantza ez diren edo aldi berean biak diren lengoia horientzako zirkuiturik. Dirudenez, sare hori osatzen duten programatzaileek ez daukate proposamen horiekiko interesik. Gainera, ez da udalaren kultura-ekipamenduen barruan sartzen. Eszenatoki baliabide nahikorik ez dagoen heinean teknikariek arazotzat hartzen dute ikuskizuna, espazio berrien aukeretan oinarritu beharrean. Uste dugu horrek erakundearen antolaketa-ahalegina eskatzen duela, baina hori berrikuntza da, existitzen ez den zerbait sortzea, eta horrek beti eskatzen du inplikazioa. Euskaraz, ingelesez, suedieraz eta espainieraz hitz egiten da, baina, aldi berean, ez da pieza narratiboa edo lineala. Deskolokatzan dira. Ez da ulertuko. Maiz "nire publikoa"-ri buruz entzuten dugu eta nola jasoko duten hain proposamen ezohikoari beldurra. Haien beldurra da. Zerbait ezberdina ez bada programatzen, nola jakin interesa dagoen edo ez? Gu



arriskatzera ausartu gara, zerbait berria bilatzera, eta programatzaileak ere ausartzea nahi dugu. Gure piezak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen, eta laguntza horiek eman zituen epaimahaiak oso positiboki baloratu zuen, baina oztopo bat sortzen da diruz laguntzen denaren eta programatzen denaren artean. Nola hausten da dinamika hori? Artistok ezin dugu bakarrik egin, instituzioaren inplikazioa behar dugu.

Arazo handia dugu Euskadin arte eszeniko esperimentalarekin. Erakundearen ardura da, hain zuzen ere, ikusleei begiak irekitzea eta denetik pixka bat eskaintzea. Belaunaldi berrietatik datorren artea, esperimentatzen duena, etorkizuneko hizkuntza berri horiek urratzen eta sortzen dituena, hezteko, laguntzeko eta sartzeko. Arriskatu beharra dago etorkizuneko artea lantzeko, egunen batean mainstream-a izango baita. Bestela, atzean geratuko gara, eta benetako kezka artistikoa duten sortzaile gazteak kanpora joango dira, dagoeneko gertatzen ari den bezala hainbeste konpainia handirekin. Askok atzerrira joan behar izan dute gertuko zirkuituek ez dutelako artea denagatik baloratzen baizik eta salduko dituzten eserlekuen kopuruengatik

Oraingo honetan behintzat, eta Beñat Fontaneda Elgueari esker, pieza osoa ondo artxibatuta geratu da. Beraz, hemen teaser txiki bat uzten dizuegu, obra honen etorkizunean ikusi ahal izango dugun guztia! Gora Plató eta arte garaikide esperimentalak, oztopo eta egoitzeko beldurrekin ibiltzen ez dena!

Plató taldea

<https://proyectoplato.com/>



Fotografias
Raúl Bogajo

ZINE GO AK 2022

El pasado 28 de febrero comenzó la decimo novena edición de Zinegoak en la gala inaugural que se celebró en el teatro Arriaga. Desde EAB, como en otras ediciones, quisimos formar parte del festival. En esta ocasión tuvimos el placer de formar parte del jurado otorgando los premios de mejor interpretación principal y secundaria.

La verdad que ha sido un placer poder ver todas las películas que participaban, a destacar las películas francesas que han sido las que mas nos han gustado. *Nudo Mixteco, Piccolo Corpo, La Fracture, Women Do Cry, Money Boys, The Frist Death Of Joana, After Blue, El perfecto David, Selini 66*..... entre otros son los títulos que hemos tenido el gusto de ver y calificar.

El jurado formado por EAB fueron los actores: Itxaso Quintana, Nadia Bolaños y Jon Ander Urresti. Fue muy sencillo llegar a un acuerdo para otorgar los premios ya que todos tenían como favoritas las mismas películas.

La entrega de premios tuvo lugar en la gala de clausura que se celebró en Bilbo Rock el 7 de marzo de la mano de Unai Izquierdo, el cual hizo que la gala fuese muy amena y divertida.

Los galardonados fueron:

Mejor Interpretación Protagonista: Maria Bakalova, por su riesgo y frescura.

Mejor Interpretación Secundaria: Pio Marmaj, por su pasión y verdad.



Y tuvimos el placer de hacer una **mención especial** a Lazaros Georgakopoulos, por su interpretación exquisita y llena de detalles.

Desde EAB queremos dar las gracias a los organizadores del festival por contar con nosotros. Contando las horas, los minutos y los segundos para poder disfrutar de la vigésima edición del festival.

Gracias por mantener viva esta profesión

Nadia Bolaños




Marta Pazos impartió un curso en el local de EAB en Donostia. Aquí los participantes junto a Marta

DE LO INVISIBLE...

El viaje que te ofrece Marta Pazos es un viaje al inconsciente colectivo, pero también una vuelta al instinto, ese que tenías tan silenciado. Ha sido una mezcla de rigor temporal y la sensación de salir al patio del recreo a jugar. Ella tiene la habilidad de despertar a la niña que hay en ti, esa a la que habías dejado en el banco castigada. Esa niña vuelve a mirar desde la curiosidad, sin filtros, sin ideas preconcebidas sabiendo que el mundo, la calle, los objetos tienen un millón de posibilidades. En sus ejercicios y piezas se escondían las respuestas a muchas de las incógnitas filosóficas de hecho teatral, pero con los pies en la tierra mojada, es decir la ejecución y la sencillez de hacer lo que se plantea sin empujar sólo escuchando la naturaleza. Y es que la naturaleza ha sido otro de los pilares importantes del taller, volver a ella para entender cómo son los procesos grupales y cómo ésta nos puede ayudar. La naturaleza nos enseña que nunca recuperas un instante y que tienes que estar siempre presente, nos enseña que la colaboración, que los cuidados son imprescindibles en el hecho teatral y nos conecta con el rito para experimentar lo invisible, lo que no se ve, lo ancestral. El rito, contiene la magia y

la magia es sensitiva algo que no tiene una explicación razonable y sobre todo poderosa, ese poder se decanta en un cáliz y no en la espada, como ya apuntaba Riane Eisler. Nos habla de romper ese “deber ser” esas máximas de lo que se puede o no hacer en un escenario, que nos constriñe y nos vuelven cautas, políticamente correctas y aburridas. Encontrarme con ella ha sido recordar, recordar la humanidad y la generosidad del teatro y en concreto de ella misma que no ha dudado en desmenuzar sus espectáculos para nuestro deleite enseñándonos cada paso, desde la organización hasta su fondo poético y compartiendo una radiografía de sí misma enseñándonos su viaje vital para hacernos entender, que partir de una misma no es algo ególatra u onanista es un ejercicio de responsabilidad. Puesto en palabras de Marta “estudio mi vida como si fuera una dramaturgia” “Yo como materia, yo como elemento artístico y yo y mi contexto” para entendernos, para madurar. **Haizea Aguila**





INSTAGRAM

Duela hilabete batzuk, arrazoiak alde batera utzita, Facebookeko gure kontua erabat erori zen, eta ezinezkoa izan zen hura berreskuratzea. Egoera horren aurrean, Zuzendaritza Batzordeak Facebooken kontu berri bat ez irekitzea eta Instagramen egitea erabaki du.

Kontu horretan, lehen jartzen genituen post-motez gain, gure afiliatuen antzerki eta ikus-entzunezko estreinaldiei leku bat egitea pentsatu dugu. Baina estreinaldi absolutuez bakarrik, mundialak esaten zaie ere. Produktioaren argazki bat, informazio-testu txiki batekin batera. Afiliatuei emandako sari garrantzitsuen berri ere emango genuke.

Horretarako, materiala EABren helbide elektronikotara bidali besterik ez duzue egin behar, eta gu arduratuko gara material horiek kontura igotzeaz.

Laster, kontuaren helbidea bidaliko dizuegu, jarraitu ahal izan dezazuen.

INSTAGRAM

Hace unos meses e ignorando las causas se cayó completamente nuestra cuenta de Facebook, habiendo resultado imposible recuperarla. Ante esta situación, La Junta directiva ha decidido no abrir una nueva cuenta en Facebook y hacerlo en Instagram.

En dicha cuenta, a parte del tipo de posts que poníamos antes, hemos pensado hacer un sitio a los estrenos teatrales y audiovisuales de nuestros afiliados y afiliadas. Pero solo de estrenos absolutos, mundiales que se dicen también. Una foto de la producción acompañada de un pequeño texto informativo. También incluiríamos noticias sobre premios o galardones de relevancia otorgados a afiliados/as.

Para ello solo tenéis que enviar el material a cualquiera de las direcciones de correo electrónico de EAB y nosotras nos ocuparemos de subir las a la cuenta.

En breve os enviaremos la dirección de la cuenta para que podáis seguirla.

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN ZERBITZUEN DESKONTUAK

SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriayorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0%	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25% ^{Precios populares}	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	15%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

AISGE

da zurea

Ikus-entzunezko aktorea bazara,
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Musutruk,

Formakuntzan
laguntzaile
izango gaituzu,
lanean babesle

Eta dagozkizun
eskubideen
zaintzaile



aisge

www.aisge.es

943 271 599 tel.